



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**2012KO OTSAILAREN 2KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. Bateriaezintasunen Batzordearen irizpena, Carlos Olazabal Estecha legebiltzarkidearen bateragarritasun-egoerari buruz. Eztatida eta behin betiko ebazpena. [09\01\01\00\0092]

Irizpena onetsi da.

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL 2 DE FEBRERO DE 2012**

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad del parlamentario D. Carlos Olazabal Estecha. [09\01\01\00\0092]

Se aprueba el dictamen.





2. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen irizpena, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko lege-proiektuaren gainean egindakoa. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\01\01\00\0011]

Otsailaren 2ko 1/2012 Legea onetsi da, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa.

2. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos, en relación con el proyecto de ley de la Autoridad Vasca de la Competencia. [09\01\01\00\0011]

Se aprueba la Ley 1/2012, de la Autoridad Vasca de la Competencia.





1/2012 LEGEA, OTSAILAREN 2KOA, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZARI BURUZKOA

LEY 1/2012, DE 2 DE FEBRERO, DE LA AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA

ZIOEN AZALPENA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

I

Lehia askea defendatzea funtsezko oinarria da merkatu-ekonomietan, eta aitortzen berezia ematen zaio demokrazia modernoan ordenamendu juridikoei.

La defensa de la libre competencia es un principio esencial en una economía de mercado y goza de un reconocimiento especial en los ordenamientos jurídicos de las democracias modernas.

Adibidez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 119. artikulua ezartzen du estatu kideek indarrean jarri behar dutela merkatu-ekonomia irekiaren eta lehia askearen printzipioa errespetatuz aplikatuko den ekonomia-politika.

Así, el artículo 119 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea establece que los Estados miembros instaurarán una política económica que se aplicará respetando el principio de una economía de mercado abierta y de libre competencia.

Halaber, Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua enpresa-askatasuna aitortzen du, merkatu-ekonomiaren eremuan, eta, era berean, xedatzen du botere publikoek bermatu eta babesten dituztela lehia-askatasuna gauzatzea eta produktibitatea defendatzea, betiere ekonomia orokorraren eta, hala behar duenean, plangintzaren eskakizunei kasu eginez.

Asimismo, el artículo 38 de la Constitución Española reconoce la libertad de empresa en el marco de la economía de mercado y establece que los poderes públicos garantizan y protegen su ejercicio y la defensa de la productividad, de acuerdo con las exigencias de la economía general y, en su caso, de la planificación.

Agente ekonomiko guztiek merkatuetan benetako lehia dagoela jakinda jardun behar dute, horrek produkzioaren efizientzia handiagoa izatea bermatuko baitu.

La existencia de una competencia efectiva en los mercados debe disciplinar el comportamiento de todos los agentes económicos garantizando una mejor eficiencia productiva.

Konstituzio Auzitegiak 1999ko azaroaren 11n epaia eman zuen, Eusko Jaurlaritzak eta Kataluniako Generalitateko Kontseilu Betearazleak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen artikulua batzuen aurka aurkeztutako errekursoak ebazteko. Epaia jarraiki, barruko merkataritzaren arloan eskumena duten autonomia-erkidegoei dagokie –Euskal Autonomia Erkidegoa kasu, 1979ko Autonomia Estatutuaren 10.27 artikulua xedatutakoaren arabera– lehia askearen inguruko gaietan eskua hartu, baimenak eman eta zehapenak ezartzearen eginkizun betearazleak betetzea, baldin eta jardunbideak erkidegoaren barruan egiten badira edo autonomia-erkidegoaren lurralde-eremutik kanpo hedatzen ez badira. Beraz, onartu egin zen lehia murrizten duten jokabideei buruzko eskumen betearazlea autonomia-erkidegoei dagokiela, nahiz eta eskumenetatik kanpo geratu kontzentrazio ekonomikoaren kontrola eta lehian eragina izan dezaketen laguntza publikoaren kontrola.

En virtud de la sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999, dictada tras la interposición de sendos recursos de inconstitucionalidad por parte del Gobierno Vasco y el Consejo Ejecutivo de la Generalitat de Cataluña contra varios artículos de la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia, corresponde a las comunidades autónomas con competencias en materia de comercio interior –como es caso de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de lo dispuesto en el artículo 10.27 del Estatuto de Autonomía de 1979– el ejercicio de las funciones ejecutivas de intervención, autorización o sanción en asuntos relacionados con la libre competencia, siempre que se trate de prácticas desarrolladas en ámbitos intracomunitarios o restringidas al mercado correspondiente al ámbito territorial autónomo. Se reconoció, así, la competencia ejecutiva de las comunidades autónomas en relación con las conductas restrictivas de la competencia, excluyendo el control de las concentraciones económicas y el control de las ayudas públicas que puedan afectar a la competencia.





Konstituzio Auzitegiaren epai horretan oinarrituta, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea eman zen. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legean ezarritako eskumen betearazleetatik Estatuari eta autonomia-erkidegoei dagozkienak zehaztea eta mugatzea zuen helburu 1/2002 Legeak. Horrez gainera, lehiaren defentsaren arloko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetan lehiaren defentsarako organoak sortzea aurreikusi zen.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezartzen dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren bidez sortu zituen Euskal Autonomia Erkidegoak lehiaren defentsari buruzko organoak, lehen aldiz. Dekretu horrek Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu zuen, Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren parekoa. Delako organoa Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikita egon da, baina ez Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan, eta hartara, beregaintasunez eta kudeaketa-autonomiaz bete ditu zegozkion eginkizunak. Halaber, 81/2005 Dekretuak Estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak Administrazio-ko berariazko organo bati ezarri zizkion, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, hain zuzen.

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak, 16/1989 Legea indargabetu zuenak, helburu hauek zituen: lehiaren defentsari buruzko sistema eraberritu eta hobetzea, Europar Batasuneko eredura egokitzea, eta koordinazioko baliabideak sendotzea, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek nahiz sektoreetako arautzaileek aplikatu dezaten araudia. Halaber, lehiaren defentsari buruzko Estatuko antolaketa-egitura guztiz aldatu zuen, organismo bakarra sortu baitzuen: Lehiaren Batzorde Nazionala, bere baitan instrukzioa egiteko eta ebazteko eginkizunak hartzen dituena. Beraz, antzinako Lehiaren Defentsari buruzko Zerbitzuaren eta Lehiaren Defentsari buruzko Auzitegiaren eskumenak lerketa Zuzendaritzak eta Kontseiluak betetzen dituzte, eta bi erakundeek Batzorde Nazionalaren mende daude.

Orobat, 15/2007 Legeak aldatu egin zituen lehia murrizten duten jardueren aurka egiteko aplikatu beharreko prozedurak, eta berebiziko garrantzia eman zion lehia sustatzeko eginkizunari, txostenak, azterlanak eta gomendioak egiteko ahalmenaren bidez.

Como consecuencia de dicha sentencia se dictó la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de Coordinación de las Competencias del Estado y las comunidades autónomas en materia de Defensa de la Competencia, con el objetivo de definir y delimitar las competencias ejecutivas del Estado y de las Comunidades Autónomas contenidas en la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia, previendo, además, la propia Ley 1/2002 la creación de órganos de defensa de la competencia en las comunidades autónomas con competencias en esta materia.

La Comunidad Autónoma de Euskadi se dotó por vez primera de órganos de defensa de la competencia mediante el Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicho decreto creó el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, homólogo del Tribunal de Defensa de la Competencia estatal, como un órgano adscrito al Departamento de Hacienda y Administración Pública, pero que no formaba parte de la estructura jerárquica de la Administración y que desarrollaba sus funciones de forma independiente y con autonomía de gestión. Asimismo, el Decreto 81/2005 asignó las funciones del Servicio de Defensa de la Competencia estatal a un órgano específico de la Administración, la Dirección de Economía y Planificación del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

La Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, que derogó la Ley 16/1989, instituyó como objeto de la misma la modernización y mejora del sistema de defensa de la competencia, su adaptación al modelo comunitario, así como el reforzamiento de los mecanismos de coordinación para la aplicación de la normativa tanto por los órganos competentes de las comunidades autónomas como por los reguladores sectoriales. Asimismo, modificó radicalmente la estructura organizativa estatal de la defensa de la competencia, al crear un organismo único, la Comisión Nacional de la Competencia, que engloba las funciones instructoras y resolutorias, de tal modo que las competencias de los antiguos Servicio de Defensa de la Competencia y Tribunal de Defensa de la Competencia pasaron a ser realizadas por la Dirección de Investigación y el Consejo, organismos ambos dependientes de la Comisión Nacional.

Asimismo, la Ley 15/2007 modificó los procedimientos a aplicar en la lucha contra las conductas restrictivas de la competencia y prestó especial relevancia a la función de promoción de la competencia a través de diversas actuaciones como la realización de





informes, estudios y recomendaciones.

15/2007 Legeak ekarritako aldaketen eraginez, 81/2005 Dekretua moldatu beharra zegoen. Horren ildotik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen dekretua aldatzeko den martxoaren 4ko 36/2008 Dekretua onartu zen. Hala ere, dekretu horrek ez zuen antolaketaregitura bateratua onetsi, euskal Administrazioak bere burua antolatzeke duen gaitasuna dela eta; haatik, aurreikusitako bi organismo horiek sustapenaren arloan abiarazten zituzten jarduerak era koordinatuan planifikatzea, sistema eraginkorragoa izan eta bitartekoak arrazionalizatuago egotearren.

Alabaina, euskal organoak sortu zirenetik metatutako eskarmentua eta beste herrialde batzuetakoa aintzat hartuta, badirudi une egokia dela nazioartean hedatuen dagoen antolaketareduia Euskal Autonomia Erkidegoan ere onartzeko, lehiaren defentsari buruzko organoak dituzten autonomia-erkidego gehienek onartu duten bezala. Gai honen arloan eskumen guztiak beregaintasunez betetzen dituen organo bakarrena da eredu hedatu hori.

Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Agintaritzak sortuko da lege honen bidez, eta erakunde-euskarri sendoa emango zaio hainbat eginkizun bete ditzan, lehia sustatu eta defendatzearen arloan.

II

Lege honek bost kapitulu ditu: xedapen orokorrik; antolaketak; agintaritzaren jarduera gardena; ekonomia-, kontabilitate-, kontrol-, kontratazio-, langileria- eta ondare-araubidea; eta beste xedapen batzuk, hitzarmenei, jurisdikzio-organoei lankidetzari, sektoreetako arautzaileei lankidetzari, laguntzeko betebeharrari, datuak isilpean gorde beharrari eta ikusatzeko ahalmenei buruzkoak.

Lehenengo kapituluak, xedapen orokorrei buruzkoak, Lehiaren Euskal Agintaritzaren izaera juridikoa arautzen du. Zehazki, agintaritzak Administrazioaren erakunde autonomoa izango da, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaureritzako sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu, dagozkion eginkizunak betetzeko. Halaber, agintaritzaren helburuak, eskumenak eta egintzen araubide juridikoa arautzen dira, bere ebazpen eta egintzen aurkako errekurtsoen araubidea barne. Eskumenen artean, lehiaren aurka-

Los cambios operados por la Ley 15/2007 demandaron la modificación del Decreto 81/2005, aprobándose, en consecuencia, el Decreto 36/2008, de 4 de marzo, de modificación del Decreto de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Este decreto, sin embargo, no asumió la estructura organizativa unitaria, debido a la capacidad de autoorganización de la Administración vasca, si bien previó la planificación coordinada de las actuaciones que en el campo de la promoción realicen los dos organismos existentes, en aras de una mayor eficacia del sistema y racionalidad de los medios.

No obstante, la experiencia acumulada desde la creación de los órganos vascos, así como la experiencia comparada, hace que se considere llegado el momento de que la Comunidad Autónoma de Euskadi adopte, al igual que la mayoría de comunidades autónomas dotadas de órganos de defensa de la competencia, el modelo organizativo más extendido internacionalmente, cual es el de un único órgano que ejerce, con independencia, todas las funciones relacionadas con la materia.

Por todo ello, mediante esta ley se crea la Autoridad Vasca de Competencia, dotándola de un marco institucional sólido para desarrollar un elenco amplio de funciones en el marco de la promoción y defensa de la competencia.

II

La presente ley se estructura en cinco capítulos que regulan las disposiciones generales; la organización; la transparencia en la actuación de la autoridad; el régimen económico y de contabilidad, de control, de contratación, de personal y patrimonial; así como otras disposiciones referidas a convenios, cooperación con los órganos jurisdiccionales, cooperación con los reguladores sectoriales, deber de colaboración, deber de secreto y facultades de inspección.

El capítulo primero, dedicado a las disposiciones generales, regula la naturaleza jurídica de la Autoridad Vasca de la Competencia, que se conceptúa como un organismo autónomo de carácter administrativo adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política económica y defensa de la competencia, dotado de personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para ejercer sus funciones. Asimismo, se regulan los fines, competencias y régimen jurídico de los actos de la autoridad, incluyendo el régimen de recursos contra sus resoluciones y





ko jokabideak zehatzeaz eta lehia sustatzeaz gain –berau lehiaren defentsaren funtsezko osagaia da, eta ekonomia-politikako tresna moderno eta eraginkorra bihurtu da–, beste bat ere emango zaio, 15/2007 Legearen ildoarekin bat: eskumena duen jurisdikzioan aurkatzea administrazio-zuzenbideari loturik dauden Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen (erkidegoko, foru- eta toki-administrazioak) egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak –foruarau fiskalak izan ezik, Konstituzio Auzitegiaren eta Botere Judizialaren lege organikoak aldatzen dituen otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoari jarraiki–, horien bidez merkatuetako lehia bideragarriari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

Bigarren kapituluak, Lehiaren Euskal Agintaritzaren antolaketa arautzen duenak, lau organoko egitura ezartzen du: lehendakaria –Lehiaren Euskal Agintaritza zuzendu eta ordezkatzeko eginkizunak betetzen dituen pertsona bakarreko organoa, Lehiaren Euskal Kontseiluko burua ere badena–; Lehiaren Euskal Kontseilua –sustatu, ebatzi eta irizpenak emateko kide anitzeko organoa, lehendakariak, bi kontseilukidek, eta idazkari orokor batek osatua (ahotsa bai, baina botorik ez du izango idazkariak)–; Ikerketa Zuzendaritza –instrukzioa egiteko eginkizunak ditu–, eta Idazkaritza Nagusia, erakundeari laguntza material, administratibo eta tekniko nahiz aholkularitza juridikoa emateko.

Erabakiak hartzeko orduan beregaintasunez aritzeko berme gisa, lehendakaria eta Lehiaren Euskal Kontseiluko kideak sei urterako izendatuko dituzte, eta berriz hartu ahal izango dute kargua –agintaldia, beraz, legegintzaldia baino luzeagoa izango da–. Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu, ekonomia-politikaren eta lehia defendatzearen ardura duen sailburuak proposatuta, eta legean bertan zehazturiko arrazoiengatik bakarrik utziko dituzte karguak.

Hirugarren kapituluak, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera gardenari buruzkoak, eginkizun hauek ezartzen ditu: emandako ebazpenak argitaratzea, urteko jarduera-oroitidazkia prestatzea, eta Eusko Legebiltzarrari informazioa ematea.

Laugarren kapituluak ekonomia-, kontabilitate-, kontrol-, kontratazio-, langileria- eta ondare-araubidea ezartzen du, herri-erakunde autonomoak gidatzen dituzten printzipioei jarraiki.

actos. Entre sus competencias, además de las de represión de las conductas anticompetitivas y la de promoción de la competencia –que se erige en componente esencial de la defensa de la competencia y constituye un instrumento moderno y eficaz de política económica–, se incorpora, al igual que hizo la Ley 15/2007, la posibilidad de impugnar ante la jurisdicción competente los actos sujetos al derecho administrativo y las disposiciones generales de rango inferior a la ley de las Administraciones Públicas autonómica, foral –exceptuando las normas forales fiscales en consonancia con la recientemente publicada Ley Orgánica 1/2010, de 19 de febrero, de modificación de las leyes orgánicas del Tribunal Constitucional y del Poder Judicial– y local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando de ellos se deriven obstáculos al mantenimiento de una competencia efectiva en los mercados.

El capítulo segundo, referido a la organización de la Autoridad Vasca de la Competencia, establece una estructura de cuatro órganos: el presidente o la presidenta –órgano unipersonal que ostenta las funciones de dirección y representación de la Autoridad Vasca de la Competencia y preside, igualmente, el Consejo Vasco de la Competencia–; el Consejo Vasco de la Competencia –órgano colegiado de promoción, resolución y dictamen, integrado por el presidente o la presidenta, dos vocales y un secretario general o secretaria general con voz pero sin voto–; la Dirección de Investigación –con funciones de instrucción–, y la Secretaría General, como órgano de apoyo material, administrativo y técnico del organismo, así como de asesoramiento jurídico.

Como garantía de independencia en la toma de decisiones se establece que el presidente o la presidenta, y los dos vocales del Consejo Vasco de la Competencia, sean nombrados por el Gobierno Vasco por un periodo de seis años renovable –periodo superior, por tanto, al de una legislatura–, a propuesta del consejero o consejera responsable de la política económica y de defensa de la competencia, y que sólo puedan cesar en sus funciones por causas tasadas en la propia ley.

El capítulo tercero, sobre la transparencia en la actuación de la Autoridad Vasca de la Competencia, instaura la obligación de publicar las resoluciones dictadas, de elaborar una memoria de actividades anual, y de informar al Parlamento Vasco.

El capítulo cuarto establece el régimen económico y de contabilidad, de control, de contratación, de personal y patrimonial, de acuerdo con los principios que rigen los organismos públicos autónomos.





Bosgarren kapituluak arlo hauek arautzen ditu: Lehiaren Euskal Agintaritzak edozein erakunde publiko edo pribaturekin hitzarmenak sinatzeko ahalmena; jurisdikzio-organoekiko lankidetzak, lehia murrizten duten jokabideei buruzko araudia aplikatzearekin zerikusia duten gaien inguruan, eta horrez gain, arautzaile sektorialekiko lankidetzak, interes komunekiko gaitetan; pertsona fisiko edo juridiko orok agintaritzari laguntzeko betebeharrak; zehapen-espedituentz hasi, horien instrukzioa egin eta ebatzean parte hartu duten pertsona guztiek datuak isilpean gorde beharra; eta lkerketako zuzendariak beharrezko baimena emanda, Lehiaren Euskal Agintaritzako langileek ikuskatzeko dituzten ahalmenak.

Azkenik, xedapen gehigarriek, iragankorrak eta azken xedapenak lege honen arauak indarrean jartzeko bideak ezartzen dituzte.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzak

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak sortu da, Administraziozko erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu bere eginkizunak betetzeko.
2. Lehiaren Euskal Agintaritzak erakunde- eta funtzio-autonomia izango du, dituen eginkizunak betetzeko.
3. Lehiaren Euskal Agintaritzak zuzenbide publikoaren mende jarriko du bere jardura, eta lege honek, Administrazio publikoko erakunde autonomoak arautzen dituzten xedapenek, nahiz horiek garatzen dituzten arauak gidatuko dute agintaritzak.
4. Halaber, objektibotasunez, profesionaltasunez, ordenamendu juridikoaren mende, eta herri-administrazio eta eragile ekonomikoekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak, helburuak lortzeko.
5. Ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailak parte hartuko du Lehiaren Euskal Agintaritzaren gidalerroak ezartzeko lanean, eta gidalerroak agintaritzaren urteko jardura-programan jasoko dira.

El capítulo quinto regula las siguientes materias: la capacidad de la Autoridad Vasca de la Competencia para celebrar convenios con cualquier entidad pública o privada; la de cooperar con los órganos jurisdiccionales sobre cuestiones relativas a la aplicación de la normativa relativa a conductas restrictivas de la competencia, así como con los reguladores sectoriales en los asuntos de interés común; el deber de colaboración que toda persona, natural o jurídica, tiene con la autoridad; el deber de secreto de todas las personas que tomen parte en la incoación, instrucción y resolución de los expedientes sancionadores y las facultades de inspección del personal de la Autoridad Vasca de la Competencia debidamente autorizado por el director o la directora de Investigación.

Finalmente, las disposiciones adicionales, transitoria y final establecen los mecanismos de puesta en funcionamiento de los preceptos de la presente ley.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. La Autoridad Vasca de la Competencia

1. Se crea la Autoridad Vasca de la Competencia, como organismo autónomo de carácter administrativo adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política económica y defensa de la competencia, con personalidad jurídica propia, y plena capacidad de obrar para ejercer sus funciones.
2. La Autoridad Vasca de la Competencia desarrolla su actividad con autonomía orgánica y funcional.
3. La Autoridad Vasca de la Competencia ajusta su actividad al derecho público y se rige por la presente ley, por las disposiciones reguladoras de los organismos autónomos administrativos y por las normas que las desarrollan.
4. Asimismo, ejercerá sus funciones con objetividad, sometimiento al ordenamiento jurídico y plena independencia de las administraciones públicas y de los agentes económicos para el cumplimiento de sus fines.
5. El departamento responsable de la política económica y defensa de la competencia participa en el establecimiento de las directrices de la Autoridad Vasca de la Competencia, que se reflejarán en el programa anual de actuaciones de dicha autoridad.





2. artikulua. Helburuak

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.

3. artikulua. Eskumenak

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak eskumen hauek izango ditu, dituen helburuak betetzeko: zehatzekoa, sustatzekoa, aurkatzekoa, ebazpenak ematekoa, kontsultakoa eta arbitrajekoa.
2. Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen-prozedurak ireki, haien instrukzioa egin eta ebatziko ditu, betiere lehia murrizten duten jokabideei buruz; esate baterako, kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusua eta lehia askea faltsutzea interes publikoari eragiten dioten egintza desleialen bidez, lehia defendatzeko araudian araututakoaren arabera. Eskumen hori gauzatzeko orduan, Lehiaren Euskal Agintaritzak ondokoak egiteko aukera izango du:
 - a) isunak jartzea, lehiaren aldeko legeriak dioena ez betetzeagatik,
 - b) hertsatzeko isunak jartzea, ebazpenetan ezartzen diren betekizunak direla-eta, edo laguntzeko betebeharra ez betetzeagatik,
 - c) zuhertasunezko neurriak eta nahitaez beteaztekoak hartzea,
 - d) isunak ordaintzetik salbuestea edo isunaren zenbatekoa murriztea,
 - e) enpresetan eta enpresa-elkarteetan ikuskapenak egitea.
 - f) lehia defendatzeko legeria urratzen duten jokoaren egileek jokoera horien ondorioz kaltetuak izan diren salatzailerei eta hirugarrenei ordaindu beharreko kalte-ordainak kuantifikatzeko irizpideak ezartzea, eskumena duen organo judicialak hala eskatzen dienean.
3. Lehiaren Euskal Agintaritzak merkatuetako lehia sustatuko du, eginkizun hauen bidez:

Artículo 2. Fines

La Autoridad Vasca de la Competencia tiene como finalidad promover, garantizar y mejorar las condiciones de libre competencia y transparencia en el mercado, respecto de las actividades económicas que se ejerzan en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3. Competencias

1. La Autoridad Vasca de la Competencia, para el cumplimiento de sus fines, ejercerá competencias sancionadoras; de promoción; de impugnación; de dictamen y consulta, y de arbitraje.
2. La Autoridad Vasca de la Competencia incoará, instruirá y resolverá procedimientos sancionadores que tengan por objeto conductas restrictivas de la competencia, tales como conductas colusorias, abuso de posición dominante y falseamiento de la libre competencia por actos desleales que afecten al interés público, tal como se regula en la normativa de defensa de la competencia. En el ejercicio de dicha competencia la Autoridad Vasca de la Competencia podrá:
 - a) imponer multas sancionadoras por vulneración de la legislación de defensa de la competencia,
 - b) imponer multas coercitivas respecto de las obligaciones establecidas en sus resoluciones, así como por incumplimiento del deber de colaboración,
 - c) adoptar medidas cautelares y de ejecución forzosa,
 - d) eximir del pago de multas o reducir sus importes,
 - e) realizar inspecciones a empresas y asociaciones de empresas.
 - f) establecer los criterios para la cuantificación de las indemnizaciones que los autores de las conductas que vulneren la legislación de defensa de la competencia deban satisfacer a los denunciantes y terceros que hubiesen resultado perjudicados como consecuencia de aquellas, cuando le sea requerido por el órgano judicial competente.
3. La Autoridad Vasca de la Competencia promoverá la competencia en los mercados ejercien-





- do las siguientes funciones:
- a) lehiaren inguruko azterlan eta ikerlanak sustatu eta egitea,
 - b) sektoreei buruzko txosten orokorrak egitea, eta horietan, benetako lehia egoteko konpondu edo hobetu beharrekoak hobetzen laguntzeko proposamenak jasotzea,
 - c) arlo publikoaren jarduerari buruzko txostenak idaztea,
 - d) txostenak egitea, erakunde publikoek emandako laguntzek merkatuetako lehia bideragarrian duten eraginari buruz,
 - e) Merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herri-administrazioei,
 - f) ekonomia-politikaren arduraren sailburuari lehia babesteko politikaren gidaritzak proposatzea, beharrezkoa bada Gobernu Kontseiluan aurkez ditzan, dagokion politika ekonomikoaren arloan, eta, bereziki, araudiak egin eta eraldatzeko proposamenak egitea.
4. Lehiaren Euskal Agintaritzak ondoko egintza hauek aurkatu ahal izango ditu administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: administrazio-zuzenbideari loturik dauden Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen (erkidegoko, foru-eta toki-administrazioak) egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztipoak jartzen baldin bazaizkio. Eskumen horretatik kanpo geratuko dira lurralde historikoetako Batzar Nagusiek onartutako foru-arau fiskalak.
5. Lehiaren Euskal Agintaritzak organo aholkuailea izango da Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan. Zehazki, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua lehiaren eremuan: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, batzar nagusiek, foru-aldundiak, udalak, lanbide-elkargoak, merkataritza-ganberak, enpresari elkarteak, sindikatuek, eta kontsumitzaile nahiz
- a) promover y realizar estudios y trabajos de investigación en materia de competencia,
 - b) realizar informes generales sobre sectores, con propuestas que ayuden a corregir o mejorar una competencia efectiva,
 - c) realizar informes sobre la actuación del sector público,
 - d) realizar informes sobre el impacto de las ayudas públicas sobre la competencia efectiva en los mercados,
 - e) dirigir a las administraciones públicas propuestas conducentes al mantenimiento o al restablecimiento de la competencia en los mercados,
 - f) proponer al consejero o consejera competente en materia de política económica y defensa de la competencia, para la elevación, en su caso, al Consejo de Gobierno, las directrices de política de defensa de la competencia en el marco de la política económica de aquél o aquélla y, en particular, las propuestas de elaboración y reforma normativa correspondientes.
4. La Autoridad Vasca de la Competencia podrá impugnar ante la jurisdicción competente los actos sujetos al derecho administrativo y las disposiciones generales de rango inferior a la ley, de las Administraciones Públicas autonómica, foral y local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando de ellos se deriven obstáculos al mantenimiento de una competencia efectiva en los mercados. Se exceptúan de dicha competencia las normas forales fiscales de las Juntas Generales de los territorios históricos.
5. La Autoridad Vasca de la Competencia actuará como órgano consultivo sobre cuestiones relativas a la defensa de la competencia en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En particular, podrá ser consultada en materia de competencia por el Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco, las Juntas Generales, las diputaciones forales, los ayuntamientos, los colegios profesionales, las cámaras de comercio y las





erabiltzaileen elkarteek.

Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzak lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoei buruzko irizpena emango du, baina ez da loteslea izango.

6. Lehiaren Euskal Agintaritzak arbitraje eginkizunak beteko ditu, zuzenbidezkoak zein ekitatezkoak, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.
7. Lehiaren Euskal Agintaritzak lehiaren defentsari buruzko legeriak enpresa-kontzentrazioen arloan ezartzen dizkion funtzioak beteko ditu, eta lehiaren sustapenari eta defentsari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera eskuratzen dituen beste eskumen batzuk ere bai.
8. Lehiaren Euskal Agintaritzak legeek emandako beste edozein eskumen beteko du.

4. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako egintzen araubide juridikoa

1. Lehia sustatu eta defendatzearen arloari buruzko eginkizunak betetzean, eta ahalmen publikoak betetzea dakarten gainerakoetan, Lehiaren Euskal Agintaritzak lege hau, lehia defendatzearen arloan indarrean diren legeak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea bete beharko ditu.
2. Lehiaren Euskal Agintaritzaren eta bere agintari, funtzionario eta atxikitako langileen ondare-erantzukizunaren araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat orokorrean ezarritakoa izango da. Lehendakariari dagokio arlo honi buruz ebaztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraiki.
3. Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen eta egintzen aurka, defentsa-gabezia edo eskubide zein bidezko interesetan kalte konponezina sortzen badute, errekurtsoa jarri ahal izango da Lehiaren Euskal Kontseiluaren aurrean, hamar eguneko

organizaciones empresariales, sindicales y de personas consumidoras y usuarias.

Asimismo, la Autoridad Vasca de la Competencia dictaminará, con carácter no vinculante, sobre los proyectos normativos que afecten a la competencia.

6. La Autoridad Vasca de la Competencia realizará funciones de arbitraje, tanto de derecho como de equidad, en los términos contenidos en la normativa vigente en la materia.
7. La Autoridad Vasca de la Competencia ejercerá las funciones que la legislación de defensa de la competencia le atribuye en materia de concentraciones empresariales y cualesquiera otras competencias que pudiera asumir de conformidad con la normativa vigente en materia de promoción y defensa de la competencia.
8. La Autoridad Vasca de la Competencia ejercerá cualesquiera otras competencias que le atribuyan las leyes.

Artículo 4. Régimen jurídico de los actos dictados por la Autoridad Vasca de la Competencia

1. En el ejercicio de las funciones relacionadas con la materia de promoción y defensa de la competencia, así como del resto de aquellas que impliquen el ejercicio de potestades públicas, la Autoridad Vasca de la Competencia se regirá por la presente ley, por la legislación vigente sobre competencia y por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
2. El régimen de responsabilidad patrimonial de la Autoridad Vasca de la Competencia y de sus autoridades, funcionarios y personal adscrito será el establecido con carácter general para la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La resolución en este ámbito corresponderá al presidente o a la presidenta, en los términos establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
3. Las resoluciones y actos de la Dirección de Investigación que produzcan indefensión o perjuicio irreparable a derechos o intereses legítimos de los interesados, serán recurribles ante el Consejo Vasco de la Competencia en el plazo





epean, lehiaren defentsari buruzko araudiari jarraiki.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako errekurtsioen ebazpenen aurka eta Lehiaren Euskal Kontseiluak edo lehendakariak harturiko beste ebazpen eta egintza batzuen aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean, administrazio-bidea agortzen baitute.

5. artikulua. Egoitza

Lehiaren Euskal Agintaritzak Bilbon izango du egoitza.

II. KAPITULUA ANTOLAKETA

6. artikulua. Lehiaren Euskal Agintaritzaren organoak

Lehiaren Euskal Agintaritzak organo hauek izango ditu:

- a) Lehendakaria,
- b) Lehiaren Euskal Kontseilua,
- c) Ikerketa Zuzendaritza,
- d) Idazkaritza Nagusia.

7. artikulua. Lehendakaria

1. Lehendakaria pertsona bakarreko organoa da; Lehiaren Euskal Agintaritza zuzendu eta ordezkatzeko eginkizunak betetzen ditu, eta Lehiaren Euskal Kontseiluko burua ere bada.
2. Lehendakaria Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, berritu ahal izango den sei urteko eperako, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren arduraren sailburuak proposatuta, ospe zein eskarmentu handi eta egiaztatua duten legelari, ekonomialari eta beste profesional batzuen arteko agintaritzaren jarduteko arloan.
